

Argitaratuta doktorego aurreko diru laguntzen deialdia 2013-2014rako

2013/07/01

Programa honek bere baitan biltzen ditu HUHEZIn doktoretza-ikasketetan zein ikerketa-ibilbidedun master ofizialetan matrikulatuta izanik, ikerkuntza-prestaketan dauden pertsonak, bertan adierazitako laguntzaren baten onuradun izanez gero. Bertan, programaren onuradunei dagozkien laguntza ekonomikoak, egoera juridikoak, eskubide eta betebeharrak zehazten dira, eta eskatzaileek jarraitu beharreko prozedurak aipatutako laguntzak jasotzeko, bai esleipen berrietan bai onartutakoak berritzeko.

Onuradunak

1. Doktorego programan matrikulatuta edo matrikulatzeko prozesuan dauden ikasleentzat.
2. Ikerketa-ibilbidedun master ofizialetan bere osotasunean (60 ECTS) 2012-2013 ikasturtean matrikulatuta dauden ikasleentzat.

Eskaeren formalizazioa

Deialdi honetako eskaerak eta gainontzeko dokumentazioa aurkezteko, **uztailaren 2tik uztailaren 18ra** bitartean epea izango du. Deialdi honetako eskaerak **HUHEZiko Idazkaritza Akademikoan** entregatu beharko dira edo **korreo arrunta** bertara bidali.

